


# XABIER OLASKOAGAREN LORE SORTA



Errenterian argitaratu izan diren aldizkarietan ohikoa izan da Xabierren lankidetzak. OARSOan bertan ere, hutsik egin gabe argitaratu izan ditu urtero-urtero artikulak, bertsoak, pasadizoak, aipamenak eta baita ikerketa lanak. Oraingo honetan ere ez du kale egin nahi izan. Bihotzean darama aldizkaria eta, esan gabe doa, oso maitea duela ale hau prestatzen aritu den taldeak. Berak idatzitako hainbat kantaren letrak bidali dizkigu, lore sorta gisa, haren lorategian dagoen edertasunaren lekuko. Behin eta berriro, eskerrik asko Xabier. Ongi izan eta gora bihotzak.

*OARSO Erredakzio Taldeak*



## **BANDURRA**

(Errusia aldeko musika lan bati ipinitako itzak)

Ator billobatxo aitonakin batera  
Egunaren sorrera goizean ikustera

Ikusiko dek mendian illuna argitzen  
zeru urdin zabala margo politez apaintzen  
Eguzki ederra garbi garbirik agertzen.


Entzun txoritxoak  
abesten dituzten eresi gozo alaiak  
Jauna agurtzera  
bizkor bizkor datoz enarak.

Otoi egik billoba  
nerekin batean  
agurtu deigun biotzez  
emen lurrean  
Zeruetan dagoen jaun maitea  
bere bakar da  
zeru lurren egillea.

Bere gabe ez da egun sentirik  
ez eta ere txoritxoaren abestirik  
Bere gabe ez da egun sentirik  
ez da txorien abesti goxoenik.

Ator billobatxo aitonakin batera  
Egunaren sorrera goizean ikustera

Xabier  
(1945-3-15)



## IPUI BAT

(Félix Lavillaren eresi batentzat idatzitako ipuia)

Ipuia entzun zazute  
bildotx batena  
artzaiak esan oi dute  
zala onena.

Mendi eder tontor batean  
elur txuri txuri artean  
artzayakin antxe pakean  
zegen bildotx bat txabolean.

Bein bakarrikan zegoela  
inguratu zan otsoa  
bildotx ura eramateko  
zularik asmoa.

Atera adi lenbailen  
zure lagunak dagozte emen  
artzayakin dagoz jolasten  
ez nazu erantzuten  
zu zerade nerekin ikaratzen.

Atera nai ez ba dek  
ni sartuko nauk barrura  
artuta eramango diat  
karubi zulora.  
Sartu omentzan zulora  
ta ojuka atera  
an barruan zer zegoen  
nua esatera.

Aingerutxo ikusgarriak  
artzai bezelaxe jantziak  
bildotx ona zaintzen guztiak  
ezpatakin bertan jarriak.

Ona izateak beti  
dauka saria  
onekin amaitu da bai  
gure ipuia.

Xabier  
(1946-8-15)



## AMONATXOA


(David Telletxearentzat idatzia)

Ille txuriz jantzirik, gure amona maitea  
Alai jartzen du beti zure irudiak gure etxea  
Zein pozik joaten geran zure magalera  
An arkitzen bai degu  
Berotasun goxo ta pakea.

Oiera joan aurretik esango digu ipuitxo  
Antxe dagoela esanik zaindari aingerutxo  
Emango digu laztan bat bero ta goxo  
Opaturik guztioi, amets onez betetako loa.

Amonatxo maitea guretzat zerade eredun  
Zu bezelakorikan ez degu arkituko iñun  
Izan zaitetz guretzat zaindaria gau eta egun.

Xabier  
(1975.go Ilbeltza)



## ZERUKO IRU TXORI POLIT

(Debusyren doinuan kantatzeko eginikoa)

Zeruko iru txori polit  
(Nere kuthuna gudan dago)  
Zeruko iru txori polit  
Emen dira igaro.

Bata da zeru urdiñ antzera  
(Nere kuthuna gudan dago)  
Bestea elurra bezin txuria  
Gorri bizia irugarrena.

Txori eder zerutarrak  
(Nire kuthuna gudan dago)  
Ona zer ekartzen dezue  
Txori eder zerutarrak.

Dakartzut zeru begiratu bat  
(Gudan da zure laguna)  
Laztan bat garbi maitekorrena  
Zure bekoki orrentzat.

Txori gorri biziena  
(Nire kuthuna gudan dago)  
Ona zer ekartzen dezu  
Egan zatozena.

Biotz gorri lirañena  
(Zure laguna gudan dago)  
Nire biotza ozten dijoa  
Eraman egaka.

Xabier  
(1959-1-22)



## AIZEA

(Alberto Santosen musikari ipinitako letra)

Aizeak dakarkienak  
ta daramazanak  
Oroipen eta tristurak  
baita erri miñak.

Alaipen ta itxaropenez  
urpetuz biotzak  
Suturik sentimen danak  
ditunak gorputzak  
au da aizearen bidez  
guri datoztenak

Bañan ala ere gure oroipenak  
ez gaituzte iñoiz aztuko  
lagundurikan aizeak

Aizea dakarkienak  
ta daramazanak  
Oroipen eta tristurak  
baita erri miñak.

Xabier  
(2005-04-06)